


altzaporrul!

2013ko iraila · 50

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHTE Allemendi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.net



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

Aurki izango da kalean Geure Kolkotik 2013 diskoa

Udazkenean sartzearekin batera izango da dendetan Geure Kolkotik 2013 diskoa. Gauzak ongi, urria hasierarako. Bildumako laugarren ale honetan, aurrekoen egiturari eutsita, bost soinu jolek hiruna pieza sortu dituzte. Diskogintza zail dagoela ikusita, izan ere, sorkuntza bul-tzatzea da Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen helburuetako bat eta horrexetarako abiatu zen duela lau urte Geure Kolkotik bilduma osatzeko proiektua.

Honoko partaideen lanak bildu dira Geure Kolkotik 2013 diskoan:

Saioa Lizarralde: Inguruko kontuak jasotzen dituen doinu mexikarra, maitasun balada eta aitaren omenez sortutako "Irolei" trikitixa ekarri ditu diskora. Obaneuke taldean kide dituen Maddalen Arzallusek eta Iñigo Sorazuk lagundu diote. Arzallusek hitzak sortu ditu, abestu ere bai, eta Sorazu baterian aritu da.

Zabaleta: Bi pieza instrumental sortu ditu Zabaletak; arin-arin eta polka bana. Horrez gain, Uxue Alberdiren hitzekin osatutako "Ateak" izeneko trikitixa ere grabatu du Motrikurekin batera kantatuta. Motriku eduki du, izan ere, aldameneari; kantuan ezezik, panderoa eta perkusioa joz.

Ander Malbadi: Instrumentalak dira Malbadik sortutako hiru piezak. Kalejira, fandangoa eta arin-arin bana ekarri ditu lan honetara. Perkusioan berriz, Zesuman taldekide duen Etxahun Urkizu aritu da bateria jotzen.

Alaitz Telletxea: Kalejira, trikitixa eta porrusalda erritmodun pieza grabatu ditu Alaitzek. Aurrenekoa instrumentala da, baina Ana Tolosaren (amaren) irrintziak alaitua. Beste bietan, Iker Goenagaren ahotsa izan du lagun eta, pieza guztietako perkusioak joz, Unai Frantsesena.

Imuntzo: "Datulu!" izeneko fandangoarekin batera, doinu latinoak, dantzagarriak sortu ditu Imuntzok lan honetarako. Hitzak sortzeaz gain, panderoarekin lagundu dio Belokik eta taldekide duten Jimmy Arrabitek jo du bateria.

Udan zehar grabatu, nahastu eta masterizatu da diskoa Hernaniko Oh Brother estudioan, Iñigo Egia teknikariarekin. Produktore lanetan aritu den Iker Goenagak "oso disko anitza" dela azaldu dio Altzaporruri, "erritmo klasikoetatik hasi eta doinu modernoetaraino". Alaitzen piezek eman diote lanik handiena deskribatzen: "sailkatzen zailak dira, oso petrsonalak direlako, oso bereziak".



JOSE MARIA SANTIAGO

MOTRIKU-REKIN SOLASEAN

21 urte kanpoan egin ondoren, Euskal Herrira itzuli da Jose Maria Santiago *Motriku*. Martxoan San Jose-tako Trikiti Jaialdian aritu zen Kepa Junkerarekin eta Geure Kolkotik diskoan parte hartu berria da Iñaki Zabaletarekin batera. Panderoa jotzeari erabat behin ere utzi ez badio ere, trikitixa munduari gehixeago lotzeko gogotsu dagoela aitortu dio Altxaporruri. Lajarekin erromeria prestatzen ari da.



Ez da baserri-izena. Ezta familiaren jaioterra ere. Baina denok ezagutzen dugu Motriku izenarekin. “Mutikotan, Basurtoko Beti Jai Alai taldean nenbilenean, taldeko batek zioen, Mutrikuko norbaiten antza nuela. Hala, Motriku deitzen hasi zitzaizkidan. Pentsa! Askok ez zekiten Jose Mari izena nuenik ere! Garai hartan izan genuen gure aurreneko emanaldia Iñaki Zabaleta eta Kepa Junkerarekin, Orobion (Iurretan) Tiliño eta Jon Petrikari esker. Motriku bezala aurkeztu ninduten... eta halaxe geratu naiz”.

1970eko hamarkadaren azkenetan, Rekalden apenas zegoen trikitixaren arrastorik. “Rainbow eta Deep Purple entzuten zuen gure adineko jendeak. Baina trikitixarik ez”. Koadrilako lagun batek, Kepa Junkerak, trikitixa doinuak jarri eta aukeratu beharrean jarri zuen egun batez. “Athletic ikustera joan ala berekin zezen plazara jotzera. Aukera egin behar nuen. Kepak orduan pianozko soinu handia jotzen zuen. Eta nik ez nekien jotzen. Gehienera ere, tuna-tankeran, zer edo zer. Keparen amak panderoa jotzen zuen eta hortik hasi nintzen”.

LAJA ETA LANDAKANDAREKIN, TXUNDITUTA

“Kepak, aurrena, txapelketetako kasetteak jarri zizkidan. Hortik hasi nintzen pixka bat doinu haiek ezagutzen. Aurreneko entzunalditik berdinik gabea iruditu zitzaidan. Eta gogoan dut Lajaren aurreneko diskoa! Txundituta utzi ninduen”. Ez du ahaztuko, Laja eta Landakanda, zuzenean, aurreneko ikusi zituenekoa. “Asteasuko ermita batean zen, Iñaki Zabaletarekin. Sinestezina! 15-bat urte nituen eta Landakandari begirik kendu gabe pasa nuen erromeria osoa. Ramon gogoratzen da oraindik!”. Gaur egun ere, hunkitu egiten da disko hura entzundakoan.

26 urte joan dira Kepa eta Zabaletarekin “Infernuko Hauspoa” diskoa kaleratu zuenetik. Gaurkotasuna ikusten dio. “Ez zait iruditzen hainbeste urte joan direnik. 1986ko txapelketan hasitako bideari jarraitu genion, tresna eta doinu ezberdinak sartuz. Bentaja izan zen guretzat trikitixa mundutik apartekoak izatea nahi genuena egiteko”. 13 urtez jo eta su aritu zen erromeriatan. “Urtean 150 emanaldi egin genitzakeen. Asko gozatu nuen, oso giro berezia zen, auzo txikietan, ukiulu edo taberna bazterretan jotzen”.

Kanpoan bizi izan denean, “afari eta erromeriaren batera eskapadatxoak” egin izan ditu. Aurrerantzean, agenda nola datorren galdetuta, “plan zehatzik gabe” dagoela dio: “Kepa eta Iñaki lagunak ditut, eta deitzen didatenean, gustura joango naiz”. Betiko nahia ere aurki gauzatuko duela kontatu dio Altxaporruri: “Lajarekin jo nahi izan dut beti. Behin sikiera! Eta erromeria prestatzen ari gara”. Agurtzeko, esker hitzak besterik ez ditu Motrikuk “trikitixaren mundu zoragarri honetara itzultzeko, grinez” lagundu dioten guztientzat; “Pilar, Izer, Xabier Zubizarreta, Jose Luis (Laja), Lutxurdio eta Astiasarani eskerrak”.

50. ALEA DU ALTZAPORRUK. URTE ASKOAN!

Dozena bat urtetik gora joan dira jada Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Altxaporruri kaleratzen hasi zenetik. Orrialde bakarreko aurreneko ale haiek tokitan geratu dira!

Aspaldi hartu zuen buletin itxura argitalpen honek, eta hori, orlegi eta urdinaren ondotik, kolore morez dator azken urtebetean Altxaporruri. Gurutzegramak jaso zituen garai batean, argazki zaharren bilduma argitaratu zen, trikitilarien agendaren berri ere eman zen buletin honen bitartez... baina ataletan aldaketak izanda ere, funtsari eusten dio Altxaporruri; Elkartearen egitasmoen berri ematez gain, trikitixa munduari lotutako berriak zabaltzeko euskarria da.

Elkartearen eta bazkideen arteko harremana indartu eta trikitixaren inguruan sortzen direnak zabaltzeko asmo sendoarekin beraz, urteurren borobila du Altxaporruri. Aurrerantzean ere, ondo bidean, hiru hiletik behin ale berria kaleratuko du Elkarteak.





Emakumeekin osatu dute kartela Oñatiko jaialdirako

Lizargarate Trikitizale Elkarateak, bosgarren urtez, trikitixa jaialdia antolatu du, udazkenerako, Oñatin. Aurten, berezia izango da jaialdia: parte hartzaile guzti-guztiak, emakumezkoak izango dira. Lizargaraten, izan ere, hutsune bat bete beharra sentitzen zuten. “Emakumeek, historian, trikitixa munduan aritzeko izan dituzten trabak eta zailtasunak ikusita, beharra sentitzen genuen halako jaialdi bat osatzeko. Nolabait, hutsune hori bete eta emakumeek egin duten lana goraiatzeko. Gaur egun, gainera, emakumezkoak gara Oñatiko trikitilari gehienak eta elkartean aritzen garen ia denak”. Hala erabaki dute, beraz, aurten emakumea izango dela jaialdiko protagonista nagusia.

Duela bost urte sortu zen Oñatin Lizargarate Trikitizale Elkaratea. “2008an Oñatin egokitu zen Debagoieneko Trikitixa Eguna. Hura antolatzeke lagun talde bat bildu ginen, eta egun hark izandako arrakastak bultzatuta, taldetxo bat elkartzen hasi eta hortik sortu zen Elkaratea. Maiztasun jakin batekin ekintzak antolatuta, herrian trikiti zaletasuna indartzea da gure asmoa”. Eta ez daude ez, geldirik egoteko! “Jaialdiaz gainera, trikiti afariak, kontzertuak, Aristerrazura irteerak, hitzaldiak, ikastaroak, Elkaratearen eguna, Azaldittako eguna (auzo bateko erromeria) ere berreskuratu dugu... ekintza ugari bai, bost urteotan”.

Kartela erabat osatzeko badago ere, aurrerapen txiki bat egin dute antolatzaileek, eta badira propio jaialdirako osatutako taldetxoak. Besteak beste, Maixa Lizarribar eta Alaitz Telletxea elkarrekin arituko dira. Kristina eta Amaia entzuteko aukera ere izango da. Elustondo ahizpak, Eneritz Bengoetxea eta Edurne Errandonea, edota Lourdes, Saioa, Maddalen eta Idurre.

Oharra: sarrerak aurrez erosteko, 10 euroan, Oñatiko kultur-etxean eta Urbia tabernan.

NOIZ: URRIAK 26, LARUNBATA, 17:30etan

NON: OÑATIKO SANTA ANA ANTZOKIAN



X. ediziora iritsi da Bizkaiko Elkarateak antolatzen duen Nazioarteko Trikitixa Jaialdia

Ibiliaren eskarmentuarekin, baina hastapenetako ilusio eta helburuekin ari da Bizkaiko Trikitixa Elkaratea aurtengo Nazioarteko Jaialdia prestatzen. Hamargarrena izanik, gainera, berezia izatea nahi lukete, Naiara Billalabeitia Elkarateko kidearen hitzetan: “oraindik ez daukagu ezer erabakita, baina asmoa badugu zer edo zer berezia antolatzeko. Betiko formatuari utsita bada ere, sorpresaren bat edo ukitu bereziren bat emateko asmotan gara”.

Azken urteotan Getxorekin lotzen dugu Bizkaian antolatzen den Nazioarteko Trikitixa Jaialdia, baina atzera pixka bat egin da, gogoratu beharrekoa da, Bilbon hasi zirela jaialdia antolatu.

“Batera ala bestera, publiko bertsua da eta ez du arazorik izaten Bilbora bezala Getxora hurbiltzeko”. Hala, Getxon izango da aurten ere hitzordua. Partaideak nornahi izanda ere, betiko helburuari utsiko diotela argi dute antolatzaileek: “Trikitixa sustatzeko bidean, soinu txikia jotzeko munduan barrena dauden molde ezberdinak ekarriko ditugu aurten ere gurera”.

Elkaratearen jardunari begiratuta, Nazioarteko Jaialdia izaten da urteko hitzordurik garrantzitsuenak. Ongi daki hori Billalabeitiak, bera ibili baita azken urteotan antolakuntza lanetan. “Duda barik urteko ekintza nagusia da. Bizkaiko Trikitixa Eguna ere ekintza oso garrantzitsua da, baina jaialdiak beste antolaketa bat behar du. Lan handiagoa da. Kanpotik datozen musikariaren ardura, oholta gainera tentsioa... Trikitixa Eguna jai giroan izaten da, eta jaialdiak hori ere baduen arren, beste seriotasun bat du antolatzeko garaian”. Hitzordu nagusiari begira, beraz, lanean ari da Bizkaiko Trikitixa Elkaratea, hamargarrenez, Nazioarteko Jaialdia prestatzen.

NOIZ: AZAROAK 30, LARUNBATA, 19:00etan

NON: GETXOKO ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN (AREETAN)

Faborez diskoan parte hartu duten soinu joleei tartea egin die **Euskadi Irratiko Arratsaldekoa** saioak. Hona hemen, trikitilari bakoitzari hartutako hitzak.

Mamen Garate Maltzeta: "Bere lantxoak izan du piezak aukeratzeak, baina oso pozik nago egindako lanarekin. Bi edo hiru pieza, oso argi nituen. '15-16 urte' esaterako, ezaguna zen Akelarrek-eta kantatzen zutelako. Baina aitak behin ere grabatu gabea zen. Nik dakidan guztia aitak erakutsita dakit... eta pena ematen zidan horiek ezkutuan geratzeak, beraz, aitaren horiek atera ditut. Nahiz duenak orain eskura ditu entzun edo ikasteko"... "Aitaren soinu zahar batekin grabatu ditut batzuk. Berez tresna jotzeko zailagoa da baina garai bateko soinu hori mantentzen du, eta guk trikitilariok badakigu zein ezberdinak diren oraingoak. Luxu bat da halako soinuak esku artean hartzea".

Juan Jose Izagirre Jauregi: "Parte hartzeko proposamena egin zidatenean... lehenengo, sorpresa! Eta pentsatu nuen, 'egin eta kitto'. Pentsakizuna ere etortzen zaizu, 'nik hau jotzeko asmoa daukat eta beste hark ere jotzen badu'... ez dago erraza. Azkenean erromeri bat bezala da diskoa, bariatua, dena fandangoak-eta izan gabe, denetik dago. Konforme nago egindako lanarekin".

Julian Azkune Barrenola: "Urte pila daramatzat erromeri mundutik aparte eta non aukeratu handirik ez neukan. Nahiko lan eman zidan piezen aukeraketak, mugatuta dagoelako: beste batzuek jotakoak ezin du izan, aurrez grabatuak ezta ere. Sakabi eta Lajarekin ikasitakoa naiz eta haien piezak bildu ditut. Aurrena beldurra sentitu nuen gonbidapena egin zidatenean, ilusioa ere bai, eta azkenerako, gustura. Grabaketa entzundakoan, uste baino hobe, gainera".

Xabier Alberdi Zabale: "Nik neuk entzun gabe neuzkan piezak deskubritu ditut eta saiatu naiz asko entzun ez diren horiek biltzen. Txiki-txikitatik edan dut trikitixa tradizionaletik eta betiko gauza da niretzat"... "Niri ideia gustatu zitzaidan, anaiarekin nuen duda, bera utzita baitago baina hark baiezkoa esandakoan, aurrera. Aukera bat da guretzako ere, garai bateko soinu joleen piezak ikasi eta jotzen ikasteko. Fandango bat, txistulari-partitura batetik ateratakoa da, eta ez dut uste soinu joleen artean askok ezagutuko zutenik".

MARTXAN DA FAKTURAZIO ZERBITZUA

Hainbat musikaririk izena eman dute eta martxan da jada emanaldietako fakturak kudeatzeko zerbitzu berria. Autonomo ez diren musikariei begira abiatu den zerbitzu honi esker, Artista Kontratua sinatzeko aukera izango da Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin. Saio bakoitzeko, Gizarte Segurantzaren alta eta baja emango zaio musikariari. Hala, hilabete bukaeran, nomina jasoko du fakturazio osoari dagozkion Gizarte Segurantzaren, IRPF zerga eta gainerakoak kenduta. Azalpen gehiago nahi izatera, Elkartearekin harremanean jartzeko bidea:

943 83 28 28 edo trikitixa@trikitixa.net

XABI SOLANO ETA ASIER GOZATEGI, KONTXAKO BANDERAREN KANTUAN

Lauroba taldeak musika jarri dio Kontxako estropadari; irailaren aurreneko bi igandeetan Donostian jokatzeko den bandera preziatuari. Trikiti hotsa duen kantua alaia osatu dute eta, tartean dira, Xabi Solano eta Asier Gozategi. Leire Martinezekin batera abestu dituzte, Unai Elizasu bertsolari eta arraunlariak egindako hitzak. Donostiarra-Kaiarriba arraun-elkarteak bultzatu du egitasmoa.